

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

600 adimen-desgaitu baino gehiago hartzen dituen okupaziozko hamabi zentrok 3,6 milioi eskuratu ditu Nafarroako Gobernuaren aldetik

Tasubinsaren 11 zentro eta Ciganda Ferrer fundazioaren El Molino zentroa dira

Jueves, 20 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak 3,6 milioi euroekin finantzatu du aurten adimen-desgaituentzako 629 plaza okupaziozko 12 zentrotan. Haietako 600 [Tasubinsak](#) eskaintzen ditu haren [okupaziozko 11 zentrotan](#), eta gainerako 29ak, [Ciganda Ferrer fundazioaren El Molino zentroan](#).

Hala jasotzen dute berriki Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentziaren zuzendari-gerente Gemma Botínek Tasubinsaren gerente José Pérezekin eta Ciganda Ferrer fundazioaren ordezkari Javier Aramendíarekin sinatu dituen lankidetzahitzarmenek.

Zentro horietan adimen-desagaitasuna duten pertsonen garapen pertsonaleko eta sozialeko zerbitzuak ematen dizkie, zailtasun larriak dituztenak enplegu arrunta edo babestua izateko. Plazetako bat hartzeko, ezinbestekoa da Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentziak egiten duen [aldeko lan-egokitasunaren egiaztatzea](#) lortzea.

Tasubinsaren 11 zentro

Zehazki, Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentziak 3,5 milioi euro erabiliko ditu Tasubinsak okupaziozko bere 11 zentrotan eskaintzen dituen 600 plazak finantzatzeko. Zentro horiek honako udalerrri hauetan daude: Beriain, Burlata, Elizondo, Lakuntza, Orkoién, Iruña (Ibaiondo zentroa), Zangoza, San Adrián, Tafalla, Tuterá eta Villatuerta.



Botín eta Pérez, Tasubinsa-koa, lankidetzahitzarmena sinatu ondoren.



El Molinoko Aramendía eta Botín lankidetzahitzarmena sinatzeko orduan.

Horretarako, Tasubinsak 95 profesionali ematen die lana eta 491 plaza eskaintzen ditu okupaziozko unitateko modalitatean, 50 lan-gaitasunekoan, 31 okupazio berezikoan eta 28 zahartze goiztiarrekoan.

Tasubinsa (Talleres Auxiliares de Subcontratación Industria Navarra, SA) 1989an sortutako enpresa da eta, 2004. urtetik, irabazi-asmorik gabekoa. Haren helburua adimen-desgaitasuna duten pertsonen laneratzea eta gizarteratzea da eta enpresaren kapital soziala [Anfas](#) eta [Fundosak](#) (ONCE fundazioa) osatzen dute. Administrazio Kontseiluan Nafarroako Gobernuak ere parte hartzen du.

Ciganda Ferrer fundazioa

Bestalde, Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentziak 185.500 euroekin finantzatuko ditu Ciganda Ferrer fundazioak kudeatzen duen El Molino okupaziozko zentroko 29 plazak. Gainera, aurtengo azken lauhilekoan zentroko plaza-kopurua zabaltzea aurreikusten da.

Ciganda Ferrer fundazioak lan-gaitasuneko eta nagusien bizimoduari egokitzeko programa bat garatzen du adimen-desgaitasuna duten pertsonekin eta lan-merkatuan sartu ezin dutenak. Horretarako, bost profesionali lan ematen die eta haiek honako jarduera hauek egiten dituzte: okupaziozkoak, kiroltakoak, gizarte eta heziketakoak nahiz kulturalak, aisialdikoak eta astialdikoak.

Erakunde hori 1976an sortu zen, interes sozialekoa da eta irabazi-asmorik gabekoa. 2002. urtean El Molino okupaziozko zentroa sortu zuen, Iruñeko El Vergel kalean daqoena.